

Santiotako programako

AZALAREN LEHIAKETA

Lanak aurkezteko epea: maiatzak 12 - ekainak 9



LEHIAKETAREN OINARRIAK

- Lehiaketan parte hartu ahal izateko, Aiztondo bailaran erroldatuta egon behar da (Amasa-Villabona, Zizurkil, Asteasu, Larraul, Alkiza eta Aduna) eta 16 urtetik gorakoa izan.
- Lanek erabat originalak izan beharko dute. Norbaitek originala ez den lan bat aurkeztuko balu, ezin izango da lehiaketaren hurrengo edizioetan aurkeztu.
- Ez da onartuko adimen artifizialarekin sortutako lanik.
- Azalaren formatua **21x21 cm**-koa izango da, eta edozein teknika erabil daiteke.
- Aurkeztutako azalak honako testua eraman beharko du: **Santio Jaiak - Villabona 2026**.
- Lanak Udaleko herritarren arreta bulegoan aurkeztu behar dira, 08:00-14:00 ordutegian.

- Lanarekin batera, sobre itxi bat aurkeztu beharko da, eta bertan parte-hartzailearen izen-abizenak, helbidea eta telefono zenbakia jarri behar dira.
- Lehiakide bakoitzak nahi adina lan aurkeztu ditzake, baina, lan bakoitzarekin batera, datuak dauzkan sobre itxi bana aurkeztu beharko da.
- Lehiaketaren epai-mahaia **Santio Jai Batzordea** da.

Saria: 500 €

**ANIMATU
PARTE HARTZERA!**



AMASA-VILLABONA
Villabonako Udala

Kultura
VILLABONA